

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"NIRE MUNDUA ESPLORATZEN: BIDAIA PERTSONAL BAT"

Jarduera-zk.: 1

B(t)
Bizkaia with the talent



Erakunde parte-hartzaileak:

Ikaskuntza-egoera

Testuingurua:

Tokiko museo batek DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin lankidetza berezia hasi du "Expo-Ni" erakusketarako. Erakusketa horren xedea da ikasleei introspektzioarako eta adierazpen pertsonalerako espazio bat eskaintzea; horretarako, "mapa pertsonalak" sortuko dituzte ikasleek. Mapa horiek ikasleek beren buruaz duten pertzepzioa erakutsiko dute. Ariketa hori bokazio-orientazioarako tresna gisa erabiltzea da helburua. Ikasleak hausnartzera bultzatuko dira, pentsa dezaten nola eragin dezaketen beren interesek eta trebetasunek etorkizuneko erabaki profesionaletan.

Abiapuntua:

Museoak gogotsu iragarri du "Expo-Ni: Nork bere burua ezagutzeko eta bokazioa esploratzeko bidaia". Publikoari irekita dagoen erakusketa hau gazteentzat dago diseinatuta bereziki. Bertan, ikasleei gonbidapena egiten zaie beren interesak eta grinak ez ezik, balioak eta ametsak ere islatzen dituzten lanak aurkeztu ditzaten. Erronka horrek autoadierazpen artistikorako aukera bat izatetik harago joan nahi du; katalizatzaile bat izan nahi du ikasleek artea erabil dezaten beren nortasuna hobeto ulertzeko eta nortasun horrek beren etorkizuneko karrera-hautaketak nola bideratu ditzakeen ikusteko.



ERANSKINA: [Museoaren gonbidapena](#)



Helburuak:

Ikasleei beren trebetasunak eta bokazio-zaletasunak identifikatzen eta haiei buruz hausnartzen laguntzea, autoezagutza sustatzeko. Horretarako, galdetegi interaktiboak bete, eta mapa pertsonalak sortuko dituzte. Autoezagutzak beren interes eta indarguneekin bat datozen erabaki kontzienteak hartzen lagunduko die ikasleei (DBHko 3. eta 4. mailak) etorkizuneko karreretara eta lanbideetara begira.

1. Ikasleen autoezagutza sustatzea.
2. Interes, trebetasun eta helburu pertsonalak identifikatzea.
3. Etorkizun akademikoa eta profesionala planifika eta irudikatu dezaten sustatzea.
4. Komunikazio, lankidetzeta eta hausnarketa kritikoko trebetasunak garatzea.

Funtsezko gaitasunak:

KONPETENTZIA PERTSONALA,
SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA
(KPSII)

Deskriptore operatiboak:

KPSII4; KPSII5; KPSII1



Mapa pertsonala deskubritzea eta sortzea

1

Misioaren sarrera eta abiatzea (10 minutu)

Aurkezpen bisual labur baten bidez, nork bere burua ezagutzeak bokaziozko hautaketan duen garrantziari buruzko sarrera bat egingo da. Horretarako, TEDx edo TED-Ed-eko bideo labur bat erabiliko da, non jorratuko baita zer garrantzi duen grina pertsonalak aurkitzeak eta nola eragiten duen aurkikuntza horrek erabaki profesionaletan.



Bideoa: [“Mi éxito, mi vocación”](#)
Ezequiel Rivero | TEDxCordoba

2

Galdetegia (15 minutu)

Ikasleek galdetegi bat beteko dute. Galdetegira sartzeko, programaren gidariak emandako QR esteka edo kodea erabiliko dute. Galdetegiak interesei, trebetasunei eta aspirazioei buruzko galderak jasoko ditu. Galdera horiek sakontasunez erantzuteko diseinatu dira.



Eranskina: [Galdetegia](#)

Programaren gidariak monitorizatu egingo du prozesua, eta zalantzak argitzeko laguntza eskainiko du.

3

Nire mapa pertsonala sortzea (10 minutu)

Galdetegiko erantzunak oinarri gisa hartuta, ikasleek beren mapa pertsonalak sortuko dituzte paperezko orri handietan. Horretarako, markatzaileak, koloretako arkatzak eta bestelako sortze-materialak erabiliko dituzte. Jarduerari ekiteko, gidariak sarrera labur bat egingo du mapa pertsonalaren garrantziari buruz. Horrez gain, mapa horretan zer eremu sartu behar diren azalduko du (zaletasunak, trebetasunak, interesak, aspirazioak, eta abar). Ikasleek lineako tresnak erabili ahal izango dituzte, hala nola [Canva](#), [Mural](#), [Bubbl.us](#) eta [Miro](#). Tresna horien bidez, erraz diseinatu ahal izango dituzte mapak.



Eranskina: [Mapa pertsonalaren eredua](#)

Programaren gidariak hausnarketa eta sormena bultzatuko ditu, eta ikasleei laguntza eskainiko die ez atzera eta ez aurrera gelditzen badira edo zalantzak badituzte.

4

Azken hausnarketa (5 minutu)

Ikasleek beren buruari buruz egin dituzten aurkikuntzei buruzko gogoeta laburra egingo dute. Aurkikuntzok beren bokaziozko erabakietan nola aplikatu asmo dituzten ere hausnartuko dute. Hona hemen hausnartzen lagunduko dieten galdera batzuk:

- Zer trebetasun edo interes berri identifikatu ditut?
- Nola aplikatuko ditut ezagutza horiek nire etorkizuneko erabakietan?
- Zer pauso emango ditut nire interesak esploratzen jarraitzeko?
- Zure ametsak erdietsiko dituzula uste duzu? Erantzuna ezezkoa bada, zure ustez, zerk eragotziko dizu hori lortzea?

Programaren gidariak gogoraziko die bokazioarekin lotutako autoesplorazio- eta plangintza-prozesua etengabea dela. Jakin-mina ez galtzera eta interesak esploratzen jarraitzera bultzatuko ditu. Etapa horretan idatzizko edo ahozko hausnarketak egin ahal izango dira, astirik gelditzen bada.

Lanbideen planetak esploratzen (10 minutu)



Bidaia horretan laguntzeko, jardueraren arduradunak **PLANETAK** bisitatzea gonbidatuko ditu. Planeta batzuei buruzko informazioa aurkituko dutela azalduko die arduradunak ikasleei. Planeta bakoitza eremu profesional jakin bati lotua dagoenez, haiek esploratzean STEM lanbideei buruzko informazioa lortu ahal izango dute ikasleek. Planeta horiek esploratzea lagungarria izango zaie interesgune eta aukera profesional berriak aurkitzeko.

Parte-hartzaile bakoitzari bere mapa pertsonalaren arabera hobekien datozkion planetetan nabigatzea gomendatuko dio jardueraren arduradunak.



PLANETAK esploratu ondoren, ikasleek aukera izango dute taldean partekatzeke STEM karrerei buruz egin dituzten aurkikuntzak. Karrera horiek beren interes eta trebetasun pertsonalekin nola lotzen diren ere azaldu ahal izango dute. Truke horrek, banakako ulermena aberasteaz gain, aukera emango dio taldeari ibilbide profesional mota gehiago ezagutzeko, eta lan-munduko aukerei buruzko ikuspegia zabalduko dio. Talde-elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer lanbidek eman dizute atentzio handiena eta zergatik?
- Nola lerrokatzen dira zure interesak eta trebetasunak esploratu dituzun lanbideekin?

5

5

Talde-eztabaida egin ondoren, ikasleek gogoeta labur bat idatziko dute dinamikan ikasi eta aurkitu dutenari buruz; horrela, hobeto barneratuko dituzte eskuratutako ezagutzak. Ikasgelan amaitu ezin badute, etxean esploratzen jarraitzea animatuko ditugu. Aurkikuntzak gurasoekin edo tutoreekin partekatzeko aukera izango dute. Interakzio horri esker, lan-munduari buruzko ikuspegi eta gogoeta berriak eskuratuko dituzte, eta are gehiago aberastuko dute beren bokazioa esploratzeko prozesua.

Jarduera hori gauzatu ondoren, ikasleek beren mapa pertsonalak aurkeztu beharko dituzte. Mapa horiek formatu digitalean ([Artsteps](#) plataformara igota) edo formatu fisikoan entregatu ahal izango dira, taldearen erabakiaren arabera. Aldez aurretik, mapak ikastetxeko korridorean erakutsi ahal izango dira, ikasitakoa hezkuntza-komunitatearekin partekatzeko eta ikasleen artean hausnarketarako espazio bisual bat sortzeko.



Baliabideak

- Ordenagailuak
- Wifi-konexioa
- Plataforma digitala
- Orri handiak, marrazteko eta apaintzeko materialak.
- Mapak erakusteko gunea.

Gauzatzeko gomendioak



Ziurtatu Interneterako konexioa dagoela, ikasleek jardueran zehar bideoak ikusi eta tresna digitalekin lan egin ahal izan dezaten.



Animatu ikasleak zintzoak eta gogoetatsuak izatera. Ez dago erantzun zuzenik edo okerrik; mapa bakoitzak egilearen interesen eta asmoen adierazpen pertsonala izan behar du.



Sortu ingurune errespetuzkoa eta enpatikoa. Ziurtatu ikasle guztiek sentitzen dutela interakzioetan eta eztabaidetan gainerakoek kasu egiten dietela eta baloratu egiten dituztela.



Lagundu ikasleei haien mapa pertsonalean hobekien egokitzen diren planetak hautatzen.



Jardueraren gidariak orientatzaile-profila izatea komeni da.

Gutxi gorabeherako denbora:

50 minutu

Ebaluatzeko errubrika

Irizpideak	Bikain 5	Ongi 4	Onargarri 3	Nahikoa 2	Hasiera 1
Auto-ezagutza	Bere interesak, trebetasunak eta nahiak sakon ulertzen dituela erakusten du.	Ea ondo ulertzen dituen bere interesak eta trebetasunak.	Bere interesei eta trebetasunei buruzko oinarritzko ulermena duela erakusten du.	Bere interesak eta trebetasunak ulertzen hasi da.	Bere interesak eta trebetasunak identifikatzeko lehen urratsak ematen ari da.
Etorkizunari buruzko hausnarketa	Zehatz-mehatz eta modu errealistan planifikatzen du bere etorkizun akademiko eta profesionala.	Zenbait xehetasunekin planifikatzen du bere etorkizun akademiko eta profesionala.	Bere etorkizun akademiko eta profesionalar en oinarritzko plangintza egiten du.	Bere etorkizun akademiko eta profesionala planifikatzeko interesa agertzen hasi da.	Bere etorkizun akademiko eta profesionalari buruzko oinarritzko ideiak esploratzen ditu.
Komunikazioa eta lankidetzaz	Ideiak argiro eta eraginkortasun ez komunikatzen ditu, eta lankidetzarako trebetasun bikaina erakusten du.	Comunica bien sus ideas y colabora efectivamente.	Comunica de manera aceptable y muestra alguna habilidad para colaborar.	Está desarrollando habilidades para comunicar ideas y colaborar.	Está explorando formas de comunicar sus ideas y colaborar.
Sormena mapa pertsonalean	Bere interesak eta helburuak argi eta garbi islatzen dituen mapa pertsonal bat egin du, sormen handikoa eta oso pertsonalizatua.	Bere interesak ongi islatzen dituen sormenezko mapa pertsonal bat egin du.	Mapa pertsonalak nolabaiteko sormena erakusten du, eta ikaslearen oinarritzko interesak islatzen ditu.	Sormenarekin esperimentatzen ari da bere mapa pertsonalean.	Bere mapa pertsonalaren sortze-prozesuko lehen urratsak egiten ari da.
Parte-hartzea eta ahalegina	Aktiboki parte hartzen du fase guztietan, eta aparteko ahalegina egiten du.	Egokiro parte hartzen du, eta dezenteko ahalegina egiten du.	Modu onargarrian parte hartzen du, eta ahalegin nahikoa egiten du.	Gehiago parte hartzeko eta ahalegintzeko prestasuna agertzen du.	Parte-hartzeko eta ahalegin pertsonala egiteko lehen urratsak egiten hasi da.

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"NIRE MUNDUA ESPLORATZEN: BIDAIA PERTSONAL BAT"

Jarduera-zk.: 1

B(t)
Bizkaia with the talent





ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERA

ERANSKINAK

B(t)
Bizkaia with the talent



Zatoz eta ezagutu zuk bezalako talentu gazteek sortutako artelan zoragarriak. Ez galdu inspiratzeko eta artearen munduarekin modu paregabe batean konektatzeko aukera hau!



Hau da zure trebetasunei buruz eta benetan egin nahi duzunari buruz hausnartzeko unea. Galdetegi hau bete ondoren, gehiago jakingo duzu zure interesei buruz, baita interes horiek etorkizuneko balizko karrerekin izan dezaketen loturei buruz ere. Pentsa ezazu hau aukera bat dela zeure burua hobeto ezagutzeko eta zer lan mota egin zenezakeen hausnartzeko.



Interesak eta grinak

1. Zein dira zure denbora-pasa gogokoenak edo aisialdian gustura egiten dituzun jarduerak? Aukerak: Kirolak, irakurtzea, artea, musika, teknologia, bideojokoak, blogak sortzea, droneak, etab.
2. Zer gai edo materia iruditzen zaizkizu interesgarrienak?
3. Zer jarduerak edo gaik pizten dizu irrika gehien hari buruz hitz egiten duzunean?
4. Egun oso bat libre eta inolako betebeharririk gabe izango bazenu, nola igaroko zenuke?

Trebetasunak eta talentua

1. Ekarri gogora zerbait garrantzitsua lortu zenuen une bat. Zure ustez, zer trebetasunek lagundu zizuten hura lortzen? Aukerak: Talde-lana, sormena, antolaketa, arazoak konpontzea, etab.
2. Zure ustez, zein arlotan nabarmentzen zara gehien?
3. Zein zeregin edo jarduera egiten zaizkizu errazak edo naturalak?
4. Zure lagunek edo senideek zure indargunerik handienak deskribatu beharko balituzte, zer esango lukete?



Esperientzia pertsonalak eta ikaskuntzak

1. Ekarri gogora zuretzat oso garrantzitsua izan den esperientzia bat. Eskolan, etxean edo jarduera bereziren batean gertatu zaizun zerbait izan daiteke. Azaldu zer gertatu zen eta zer ikasi zenuen esperientzia horretatik. Nola sentiarazi zintuen? Zer aldatuko zenuke zer errepikatuko zenuke horretarako aukerarik izanez gero?
2. Parte hartu duzu curriculumetik kanpoko jardueraren batean (klubak, kirolak, musika)? Zer ekarri dizu jarduera horrek?
3. Ekarri gogora aurre egin behar izan zenion erronka edo zailtasun bat. Zer egin zenuen hura gainditzeko? Gogoratu zer estrategia erabili zenituen: laguntza eskatzea, plan bat egitea, denbora gehiago baliatzea, pentsamoldea aldatzea, eta abar. Zer irakaspen atera zenuen bizipen horretatik?
4. Zein izan duzu orain arteko eskola-proiektu edo -lanik gogokoena?

Helburuak eta ametsak

1. Edozein lanbide aukeratu ahal izango bazenu, oztopoak gorabehera, zein aukeratuko zenuke eta zergatik?
2. Imaginatu zure bizitza ideala 10 urte barru. Zertan ari zara? Non zaude?
3. Zer arrasto mota utzi nahiko zenuke munduan?
4. Pentsatu zer karrera ikasi nahiko zenukeen. Lortuko duzula uste duzu? Erantzuna ezezkoa bada, zerk eragotziko dizu karrera hori egitea?

Hausnarketa eta autoebaluazioa

1etik 5era bitarteko eskala batean, zenbat gustatzen zaizu taldean lan egitea?


1. Ez zait batere gustatzen
2. Oso gutxi gustatzen zait
3. Neurrian gustatzen zait
4. Dezente gustatzen zait
5. Askok gustatzen zait

Aukera itzazu zure ustez hobekien deskribatzen zaituzten hiru hitz. Aukerak:

- a) Sortzailea
- b) Analitikoa
- c) Enpatikoa
- d) Ordenatua
- e) Jakinguratsua
- f) Praktikoa
- g) Lagunkoia
- h) Independentea
- i) Dinamikoa
- j) Gogoetatsua

Taldeko egoeretan, zein hiru adjektibok deskribatzen zaituzte ondoen?

- a) Liderra
- b) Laguntzailea
- c) Hiztuna
- d) Zirt edo zartekoa
- e) Pazientzia handikoa
- f) Berritzailea
- g) Sostengua/Euskarria





Hona hemen mapa pertsonalaren adibide bat.

